

# Baleike

Zumaiako herri  
aldizkaria.  
11. zbkia.  
1995eko apirila.  
100 pzta.



SAN TELMO KALEA

## DANOK TXUPINAZOAREN ZAI!!

Hezkuntza

**Zumaiako Herri  
Eskolaren lehen  
pausuak**

Elkartzketak

**Driss, ostegunero  
Zumaian,  
ostegunero  
zumaiar**

Kirolak

**Herri Krosaren  
sailkapenak eta  
argazkiak**






(Javier Carballok utzitako argazkia)

**"GRAN HOTEL AMAYA"**

*Hala zioen behintzat bere letreroan eta hala gogoratzen dute ezagutu izan dutenek behintzat. Hura desagertu zenetik, beti bota izan da faltan Zumaian behar bezelako hotel bat, gaur egun ere berdin gaudelarik. Badirudi, argazkian ikus daitekeenez gerra garaiko argazkia dela, eskubiko autoan "Polvorín de guerra" irakurtzen baita.*

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**



ZUMAIako INSTITUTUA

Aita Mari Auzategia, z/g

20750 - ZUMAIA

86 08-09/86 08 10

Zumaiaiko Udalak diruz  
lagunduriko aldizkaria





**BALEIKE**

**HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea  
tfnoa: 86 10 56

argitaratzailea

**ZUMAIAKO GAZTE  
BATZORDEA**

lan taldea

Iratxe Aizpurua  
Esther Martinez  
Itziar Manzidor  
Xabier Azkue  
Igor Uranga  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta  
Juan Luis Romatet

kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea,  
Miriam Romatet,  
Aitor Leiza, Izar Martin,  
Imanol Manterola, Daniel  
Carballo, Jon Manzidor

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.  
(Zubillaga - Oñati)  
tirada: 600 ale

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKEk ez du bere gain  
hartzen aldizkarian  
adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzunkizunik.

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Iritzia: <i>Gazte batzordea</i> .....	4
Gai Librean.....	5
Ze Berri?: <i>Korrika. Portua</i> .....	6
Elkarrizketa: <i>Driss</i> .....	8
Inkesta fotografikoa: .....	11
Hezkuntza: <i>Herri Eskola</i> .....	12
San Telmoak: .....	14
Komikia .....	16
Antimilitarismoa: <i>Aste antimilitarista</i> .....	18
Olarru zopa.....	19
Sexualitatea:.....	20
Izerdi patsetan: <i>Zumaiako krosa</i> .....	22
Literatura: <i>zenbait olerki</i> .....	25
Kultur Agenda:.....	26
Musika: <i>THE PACK</i> .....	28
Denborapasak.....	30
Merkatu txikia.....	31
Lehiaketa .....	32

**H**itzaurrea

*Bere lehen etapa burutzeko kilometro gutxi falta zaizkio gure Baleike kuttun honi. Hilabete eskas geratzen zaio bere bizitzako lehen urtea egiteko.*

*Baina honetaz aurrerago arituko gera. Oraingo, hemen aurkezten dizuegu apirileko zenbaki berria. Larri xamar ibili gera oraingo honetan aldizkaria kaleratzeko, baina beno azkenean nola edo hala hemen dezue hilabeteroko zitari huts egin gabe, "faltaría más".*

*Herri eskolari buruzko erreportaitxo batetaz gain, krosaren inguruko laburpen nahiz sailkapenak sartu ditugu eta goxotasun pixkatekin amaitzeko, ostegunero hainbat urtetan "txutxeriak" saltzen diharduen Driss famatuarekin solasaldian aritu gera. Gustora dasta ezazuela.*

**PREMIAZKO TELEFONOAK:**

Kultur Etxea .....	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 2172
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44



# Eta Gazte Batzordea?

## Zigor Etxabe

Dendoraldi bat pasa da Zumaiaiko Gazte Batzordea sortu zenetik eta gaur egungo egoera ikusirik, gogoeta batzuk egin nahi nituzke.

Gazte Batzordearen sorrera, egoera konkretu batean kokatuko nuke nik: garai hartan, zumaiaer gazteon arteko elkarlana faltan botatzen genuen hainbat gaztek. Izan ere, Amaiaiko Plazako bilera haiek, festa haietako mobidek, gazte zumaiaerok elkarrekin lan egiteko posibilitate eta gogoia zegoela erakutsi ziguten. Lehendabiziko mugimendu haien ondorio izan zela esan daiteke Forondako bilera hura.

Jendeak gogoia zuen lanerako, zerbait berria ateratzeko, izan ere, garbi zegoen, Zumaian ez genuela gazteok ia ezer ere: gazteon arteko giroa nahiko hilda zegoen, ez genuen lokalik, ezta gure gustoko festarik ere, eta ezta...

Beraz, hasi zen jendea agertzen, hasi genituen bilerak, ideiak, eztabaidak,...Eta etorri ziren proiektu berriak eta ondorioak:

-Udaletxeari erakutsi zitzaion gazte asko eta asko bilduak ginela, eta gure asmoak aurrera eramateko gogo biziz genbiltzala. Adibidez, frontoi txikiko lehenengo txosnaren inguruko mugimenduekin.

-Koadrilien artean, halako erlazio eta langiroa sortu zen. Irrifarrak, ilusioa, gogoia,...

**Festetarako biltzen gara justu-justu eta hori, egin beharra dagoelako. Esan daiteke GB ez dala existitzen gaur egun.**

-Festa alternatiboak: txosnako (frontoi txikiko) giroa, turnoak, antolatu beharreko ekintzak, bizikleta kalejirak, txokolatadak, bazkari herrikoiak,...

-Aldizkari eta irratiko proiektuak. Irratiko materialaren erostea, proiektua txosten batetan plasmatea, talde osaketak,...

-Mendiko irteera, dantza ikastaroa, kontzertuak,...

-Posible zenean, udaletxearekin elkarlana (ahal zen heinean) eta hurrengo, berriz, moskeo latzak, alferrikako eztabaidak, errezeloak,...

-Baina larrosak arantzak dituen bezelaxe, momentu ez hain onak ere izan ziren: ihauteritako mobidak, jendearen nekea, gai batzuekin aurrera jo ezina (lokala batipat), akatsak,...

Eta gaur egun zer dugu bada guzti honetatik?

Jendea nekatuta, edo eta errelebo falta, edo ideia falta,edo

pasotismoa berriro, edo... Funtzionatzen duen gauza bakarra Baleike aldizkaria da eta berau, gazte konkretu batzuen borondate eta lan gogoari esker, beste askori ahaztu baitzaizkigu lehenengo bilera, gogo, konpromezu eta abarrak.

Festetarako biltzen gara justu-justu eta hori, "egin beharra" dagoelako. Esan daiteke GB ez dela existitzen gaur egun.

Beraz zer aldatu da hasera hartako egoeratik, gaurko egoerara?

Aldizkari bat lortu da herri guzira zabaldua; diru apurra dugu txosnari esker; festen inguruan garbi dago Udaletxearen eta gazteon arteko ezberdintasunak non dauden eta gainera ez dago puntu horietan gehiago hurbiltzerik.

Hau al zen Gazte Batzordearen muga? Beraz, bere egin beharra amaitu al du Gazte Batzordeak? Konforme egoteko moduan al gara zumaiaer gazteok?

Non gelditzen dira, ba:

Gazteontzako lokala? Herriko jende ezberdinarekin egin nahi zen herri irratia hura? Kontzertuak? Festa ezberdin haiek? Gure festa haiek? Kafe tertuliak? Giro ezin hobea zuen elkarlan hura? Rokodromoa?...

Garbi dago jendeak ideiak izango dituela buruan bueltaka, beraz, ea ideiak ordenatu, denonak batu, eta berriro ere lanean hasten garen. Nik uste, merezi duela. Eta zuk? ■

**LANDARE  
LOREDENDA**  
Baltasar Etxabe, 5  
Tel. 862472 ZUMAIA

**ZUMEA  
TABERNA**  
Erribera kalea, 2  
Telefona: 861125  
ZUMAIA

**Gastedi  
kirolak**  
Kirol jantziarik egokienak  
preziorik hoberenetan  
Etxebarreta 9 - Zumaia





## META

META diodanean, ez naiz ari inora eramango ez gaituen lasterketa baten HELMUGARI buruz; nere ustez gutako bakoitzarentzat oso interesgarria izango litzatekeen planteamendu existenzialistaren garrantzia ari naiz, HELBURUAz hain zuzen ere: non nago, nola eta nora noa, zer izan nahi, behar dut edo eta zer komeni zait izatea.

### Katza

Hau pixka bat arraroa egingo zaizuela somatzen dut; ondo da.

Orain dela denboraldi bat, nere auto-buruhauste horietako batean, umeei hain erraz galdetu ohi zaien hori galdetu nion nere buruari: "Eta zuk zer izan nahi dezu haunditan?". Automatikoki honelako hitzak bururatu zitzaizkidan: famatua, inportantea, aberatsa, poteretsua, ... Geroxeago (asto xamarra bainaiz) zera pentsatu nuen, inoiz arazorik emango ez didan zerbait izan behar du, eta zenbat eta gehiago hobeto. Aurreko erantzunak baldintza honen pean jarri ondoren, berehala konturatu nintzen horiek ezin zitezkeela nere helburu edo metak izan. Momentu hartan nere barnean hutsune eta frustrazio handi batzuk eta bestetik bilakuntza existenzialista bat sortu zitzaizkidan.

Zorioneko egun batean, apuntatzeko moduko horietako batean, nere giltzari partikularrarekin bete-betean bat egiten zuen kontzeptu bat, hitz bat azaldu zen nere buruan. Estatus-kontzeptu hau, "ZORIONTASUNA" zen eta hala da oraindik ere, tontakeria bat dirudien arren.

Momentu hortatik aurrera, zorionsua izan nahi nuen, eta kuriosoena da META honek beste gauza asko izateko aukera ematen didala; adibidez, aberatsa ala behartsua, famatua ala ezezaguna, xumea ala konplikatua. Argi eta garbi daukat egiten, esaten, pentsatzen dudana guztia nire giltzariarekin bat datorrela, hau da, zorionsu izateko aukera ematen dit, ziur nago bizitza honetako nere egunak amaitzen direnean nere meta edo helburua lortu izanaren ziurtasunez izango dela.

Denboraren iraganean eta bilakuntza amaitu ez denez, nere baitan gutxienez aurrekoa bezain garrantzitsuak diren beste zenbait kontzeptu sortu zaizkit, adibidez MAITASUNA (ez naiz maitatze emozionalaz ari), KONTZIENTZIA (zerbaitetaz konturatzeko gaitasuna), eta abar, eta abar. Baina hau beste kontu bat da.

Eskerrak Baleikeri hitz hauek argitara emateagatik, eta zuri irakurri dituzulako. ZORIONTSU IZAN ZAITEZELA!

## TORTURA



### ANDONI MANTEROLA

Gobernu honek badauka hemen benetan gauza oso txarra gure herria zapaldutzeko tortura ibili beharra zarta piloa hartzea behintzat neretzat ez da earra ta ordun pentsa presoak noiznahi hartzen ditu barra-barra.

Gure Zumaian ere izan da jendea torturaturik Hilario eta Jon Maiak ere hor badute zer esanik baino ni "TXATO"-z gogoratu naiz oraingo hontan azkenik jakin dezala gure herriak ez daukala ahazturik.



**Foto Gar**  
Aldizkari,  
egunkari  
eta opariak  
  
Erribera kalea 21

**Huntza, o.k.**  
  
DISEINUA  
MANTENUA  
ERABERRITZEA  
ZUHAITZ,ZUHAIKKA  
ETA FRUITONDOEN  
KIMAKETA  
lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

**Itzurun**  
ATEAK-PUERTAS  
Era guztietako  
egurlanak  
Itzurun zuhaitzbidea  
Tlf: 861 565 - 1 43446




*Martxoaren 23an lehenbizi korrika gaztea izan zen kaleetan zehar institutuko ikasleekin. Argazkian ikusten den bezala jendea oso animotsu agertu zen. Ondoren bazkaria izan zuten trikitixa eta bertsolari eta guzti.*



*Moila eta Erribera kalean zehar ibili zen korrika txikia, eta ibilbidean aurrera zihoazen bezala jendea nekatzen hasia zegoenez, batzuk aurrerago eta beste batzuk atzerago geratu ziren. Pankartak ordea sendo eta argi iraun zuen.*



*Gorputzari astindualdi latza eman ondoren, festa ederra izan zuten beheko plazan: kantak, txisteak, bertsoak eta amaieran puzzle haundi bat egiteko aukera izan zuten hurrek. Korrika nagusiak argazkirik jaso gabe aldegin zuen, presaka.*



Auto - Konponketak

**ELKAR**



**PEUGEOT**

Estazioko kalea  
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

JOSEBA OSA

**- ITZULPENAK -**

EUSKARA-GAZTELERA-  
KATALANA-INGELES-  
FRANTSESA

tel / fax: 148065



## LABURRAK



## Barrako lanak berriz ere hasi dira

Aste batzutan zehar barrako obrak gelditurik egon ondoren, berriz ere martxan jarri dira epailearen errekurtsioa kendu denean. Egun hauetan ibaiaren hondoan hondar asko pilatu dela ikusi ahal izan degu. Honen inguruan, bai Zumaia Bizirik, bai alkateak, zenbait komunikatu kaleratu dituzte, elkar deskalifikatuz, eta errua batak besteari botaz. Astilleroek egindako bi untzien irteera arriskuan jartzea izan da polemika honen azken kapitulua.

Dena den, uste degu dagoeneko guztiok dituzuela ideiak nahiko argi, bai batzuen edo besteen alde, eta nahiko informazio jaso dezuela. Bienbitartean lanak aurrera doaz, eta denborak esango digu kontu honek ze norabide hartzen duen.



Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA

### xirula



ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI


Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA  
Tel. 861705

### ΔΙΖΜΑΝ-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA  
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta  
auzoa z/g  
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24  
20740 IRAETA -  
ZESTOA



## NIKOL-ENEAA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440



# DRISS:

## "Nire erlijioa ez dut beste ezerengatik aldatuko"

Ostegunero hor izaten dugu Driss, "kinkileroen" azokan goxokiak eta antzekoak saltzen. Zumaia asko gustatzen zaio, itsasoa eta hondartza dituelako, eta gustora etorriko litzateke hona bizitzera, baina emaztea Zumarragakoa da, eta bertan ditu etxe, familia, adiskide, eta gainontzekoak. Ez da, beraz, hona etorriko bizitzera, baina hori bai, udan, eguraldiak laguntzen duenean, beti bezala jarraituko du --Urolako urak bezala-- itsasorako bidea azkar eta pozik egiten.

Joseba Osa

### Non jaio zinen?

Marruekosan, Kenitra izeneko hirian (200.000 biztanle). Kenitra kostaldean dago, Rabat-etik 34 kilometrora, iparralderantz.

### Noiz etorri zinen Euskal Herrira?

1972an etorri nintzen lehenengo aldiz, baina handik piskatera Frantziara jo nuen, eta 1974ean itzuli nintzen hona, lehendabizi Nafarroara, eta gero Zumarragara, IRIMO-n lan egitera. Han 6 urte egin ondoren, lana gutxitzen hasi zenean, alde egin genuen, eta neure kasa hasi nintzen lanean, saltzen.

### Ezkonduta al zaude?

Bai. Emaztea Zumarragakoa da, eta bi mutil ditugu. Zaharrenak 18 urte ditu, eta bigarrenak zazpi egin behar ditu laster.

### Gustora al daude?

Bai, oso gustora. Ez dira diskriminatuta sentitzen. Erabat integratuta daude, eta oso pozik bizi dira. Hemengo sentitzen dira erabat.

Oporretan Marruekosera joaten gara urtero, baina oporrak amaitzen direnean gustora itzultzen dira hona. Euskera badakite, eta ikasten jarraitzen dute.

### Zuk zein hizkuntzatan egiten diezu?

Gehienbat gazteleraz. Eta damututa nago. Gai horrekin hanka sartu nuen. Hasieran uste nuen hobe zela gazteleraz hitz egitea, baina oker nenbilen, zeren txikitan erraz ikasten

dituzte hizkuntzak. Bai, berandu hasi nintzen neure hizkuntzan hitz egiten, baina ez dio axola, zeren orain ikasi dute, eta ondo moldatzen dira. Urtero bi hilabete igarotzen dituzte Marruekosan, eta hango familiarekin arabieraz bakarrik hitz egiten dute.

### Zenbat urte daramatzazu Zumaiara etortzen?

Gutxi gora-behera 15 bat urte.

### "Integristak ez dira musulmanak"

### Gustora etortzen al zara?

Bai, herri hau asko gustatzen zait, eta gainera jende asko ezagutzen dut. Ostegunetan jende asko pasatzen da hemendik, eta urte asko



Elurra polita da, bai, baina ...

**EGOKI**  
**ERLOJU DENDA**  
E: Gurrutzaga plaza, 6  
**ZUMAIA**

**JZETA**  
orrastegia  
Urumea 6  
Tlf: 862083



direnez, jende pila bat ezagutzen dut. Masajistarengana eta dentistarengana ere hona etortzen naiz.

## Zergatik?

Ba... Zumaia asko gustatzen zaidalako, batez ere itsasoa eta hondartzagatik. Gertatzen da etxea, eskola, almazena eta nire mundua Zumarragan daudela, baina bestela... hona etorriko nintzateke. Hondartza asko gustatzen zait. Ni kostakoa naiz, eta kostak tira egiten dit.

## Udaran ere etortzen zara?

Bai, udaran, oraindik hemen nagoenean sarritan etortzen gara. Nik beti esaten dut zumaiarrei inbidia dietela, hondartzagatik. Zumarraga urrutu geratzen da.

## Eta zumaiarrak zer iruditzen zaizkizu?

Nik harreman onak izan ditut beti, eta ez daukat batere kejarik. Ondo tratatu naute beti. Oso lagun onak ere baditut. Bai hemen eta baita Arroa-behean ere. Arroari maitasun berezia diot. Herri txikia da, baina aspalditik urtero joaten naiz Karmenetan. Gainera, festetan bertan geratzen nintzen lotan, pisu bat alkilatzen nuen, eta hiru edo lau egun pasatzen nituen han, etxera joan gabe. Oraindik ere hara joaten jarraitzen dut.

**"Leku guztietan dago razismoa, batez ere afrikarren kontra"**

**Denbora librean zer egiten duzu. Zeintzuk dira zure**



...hondartzako berotasunak nahiago.

## entretenimenduak?

Futboleko jolastea asko gustatzen zait. Baita igeri egitea ere, musika entzun, telebista ikusi... eta irakurtzea. Baina ez edozein gauza, denbora pasatzeko, baizik eta interesatzen zaizkidan gaietara buruz, gai interesgarriak direnean.

## Lana eta razismoa

### Euskal Herrira etorri zinenean zer egin zitzaizun gogorrena edo arraroena?

Hasieran beti zaila izaten da beste kultura batean, beste klima batean bizitzea. Oso lurralde desberdinetik zatoz, eta ohiturak desberdinak dira. Behar bada zailena hasieran klima izan da. Hau hotza eta euritsua da. Oraindik ez naiz ohitu

klima honetara. Hotzarekin sufritzen segitzen dut. Beste aldetik, gogorra da, baita ere, retxazatua izateko beldurra izatea. Nik lagun asko ditut, eta lagun onak ere bai, baina bestalde razismo piska bat badago, eta baita inbidia ere. Adibidez fabriketan bost atzeritar geunden eta langile batek "Fuera los negros" ipini zuen komuneko atean. Badakit nork ipini zuen, eta ez zen euskalduna. Bera ere emigrantea zen, Espainiatik etorria. Razismoa badago, baina ez dut ulertzen. Lana guztiona da. Lanak ez du mugarik, eta ogia bezalaxe, guztiona da. Geure izerditik irabazitako ogia denona da.

### Hemen razistak al gara?

Nik uste det leku guztietan dagoela razismoa: Frantzia, Belgika, Suitza, Alemania,.... leku

**Surf**

Torre Luzea, 2  
Tel. 83 50 24  
20800 ZARAUTZ

Erribera, 7g  
Tel. 85 23 69  
20750 ZUMAIA

**Enduñotele zumaia**

• SUKALDERAKO ALTZARIAK  
• ELEKTROGAILUAK  
• BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8  
Telefonoa: 861894

ARRAIN ETA MARISKOAK

**MARES**

BARAZKIAK  
ETA  
AURREZ  
PRESTATUTAKO  
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK



guztietan, eta batez ere afrikarren kontra. Ez dakit zergatik, zeren europarrak mendeetan egon dira gu eta gure lurak esplotatzen, gure lanaz aprobetxatzen, gure izerdiaren kontura aberasten, eta hala eta guztiz ere Afrikan ondo hartuak izan dira, ez gara razistak izan. Eta orain, gu etorri gara hona, eta ez besteen kontura bizitzera, baizik eta lan eginaz bizitzera, geure izerdiaz bizimodua irabaztera, inorena kendu gabe, eta hala ere ez gaituzte ondo hartzen. Ez luke razismorik egon behar, eta tristemena da, baina hori horrela da, eta horrela izango da. Ez da erraza hori konpontzea, pertsonarekin jaiotzen delako.

## Baina kultura guztiak al dira razistak?

Ez. Adibidez, oraindik ere jende asko joaten da Marruekosera, oporretan, eta denek esaten dute oso

ondo hartzen dituztela, oso jende irekia eta abegikorra dela.

## Erljio kontuak

### Sinestuna zara?

Bai, eta nire erlijioa ez dut beste ezerengatik aldatuko. Nik gauzak oso garbi eta zuzen ikusten ditut musulmanen irakatsietan. Gainera, 300.000 pertsonatik gora konbertitu dira Islam-era, baina ez dut bat bera ere ezagutzen gure erlijioa utzi, eta beste batera bihurtu denik.

### Eta zure iritziz, zergatik da hori horrela?

Ez dakit, baina hori horrela da. Azken profeta Mahoma da. Jesukristo ere profeta zen, baina kristauek esaten dute Jainkoa dela. Nik ez dut hori ulertzen. Nola izango da Jainkoa orain dela 2000 urte jaio bazen? Jainkoaren seme dela esaten dute,

baina ni ere bai; gu denok gara Jainkoaren seme-alabak. Nik neurea praktikatu, eta besteena errespetatzen dut.

## Lanak ez du mugarik, eta ogia bezalaxe, guztiona da

### Eta integrismo musulmana, zer iruditzen zaizu?

Integristak ez dira musulmanak. Islam-a jarraitzen duenak ezin du hil, ezin du gezurrik esan, ezin du lapurtu, ezta bestearen emaztearekin lo egin ere. Musulmanak direla esaten dute, baina hori ez da egia, hil egiten dutelako. Integristek arrazoi politikoengatik hiltzen dute, lehen izandako boterea berreskuratzeko asmoz, eta ez erlijioagatik. Integrismoa Iran-en sortu zen, Jomeiniren jarraitzaile fanatikoaren eskutik. Palestinarren indarkeria desberdina da. Palestinarrak beren burua defendatzen ari dira, Israeldarren erasoaren aurrean babesten dira. Musulmanak jende guztiaren anai eta lagun izan behar du, eta ez etsai. Hori ez da gure legea.

Denboraz nahiko juxtu genbiltzan, eta bertan utzi behar izan dugu elkarrizketa mamitsu hau, baina esan bezala, hementxe ikusiko dugu behin eta berriro, jende guztiari, --eta batez ere hain maite dituen umeei-- gozokiak eta gainontzeko letzarrekerei saltzen,... edo hondartzan, eguzkiaz gozatzen! ■



Ostegunero ikusiko dezu Amaiako plazan, irriparra beti ahoan.

**leize**  
**TABERNA**  
Juan Belmonte, 6  
Tel. 860415 ZUMAIA

  
**Foto Amertze**  
Erribera Kalea, 6  
Telefonoa: 86 17 07  
Fax: 86 17 07  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

  
Amaiako plaza, 7  
Tel.- Fax: 862385  
20750 ZUMAIA





**Antton  
Urrestarazu:**

Ez dakit, nere neskarekin edo txakurrarekin, igual dit; eta non? ba...mendian.



**Migel Angel  
Martija:**

Sharon Stonekin hondartzan.  
**ETA KITTO!**




**Estitxu Osa:**

Karibeko hondartza batian palmera baten azpian, eta nola ez ba? Jaime Marichalarrekin.



**Arritxu  
Zubizarreta:**

Goenkaleko politenarekin, Karlosekin eta Zumaiako txokorik politenean, Algorrin.



**Nekane  
txapartegi:**

Ni gustora egongo nintzateke, Bali-ko irlan, nere gizona alboan edukita.



**Patxi  
Errarazabal:**

Ondo egongo zan ba Kim Basingerrekin Pazifikoan.



**Mari Karmen  
Etxabe:**

Zumaiako txoko batian, baina mendian izan dadila; eta ni ezkondata nagoenez, nere gizonakin.



**Mila Zubieta:**

Hementxe, Euskal-Herrian ondoena, eta bueno, nere gizonakin.



**Ile - kosmetikan diplomatua**

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
ZUMAIA

*Belardenda*  
**Paki**  
erribera 2  
Tlf: 143156  
OSASUN NATURALA

**JOXE  
MANUEL**  
**Kupoi batzuk  
erosi eta ...**  
**ZORTE ON !!**

**ONCE**



# HERRI ESKOLA MARTXAN

Zumea ikastola, Julene Azpeitia eta Institutuaren bateratzea hasia da

Gure Herri Eskola lehen pausuak ematen hasia da. Joan zen martxoaren 2an Aita Mari Zineman egin zuen bere lehen aurkezpen publikoa. Orain, 95-96 ikasturterako haurren matrikulazio kanpainan murgildurik dago, izan ere, aurten matrikulatzen diren 2 eta 3 urteko haurrak, eskola berriaren hazia izango baitira.

Batasunetik sortutako eskola dugu Herri Eskola; Zumea Ikastola, Julene Azpeitia eta Zumaiako Institutuaren arteko hezkuntza proiektuen batasunetik alegia. Eta batasunak ematen duen indar eta kemenaz baliatuz, irakaskuntza publikoaren esparrutik, Zumaiak irakaskuntza arloan dituen beharrei erantzuteko asmotan dator, etorri.

**Zumaiarren (irakasle, ikasle eta guraso) esku dago Herri Eskolaren etorkizuna**


Azalpen mailako ezaugarriak alde batera utziz eta praktikotasunaren bidetik abiatuz, Herri Eskolak zumaiarrei eskeintzen dizkien ekarpenetatik, batez ere, bi aipatu behar dira:



**Azkue Autoak**

Estazioko kalea, 19  
20750 ZUMAIA

Telefona: 861433  
Fax: 861067



ZUMAIAKO HERRI ESKOLA



**1) Eskolatze adinaren aurreratzea.**

Orain arte eskolaratzea hiru urteko haurrekin hasten zen, nahiz eta bi urtekoek ere goizez pare bat ordu eskolaratzeko aukera izan. Aurrerantzean ordea, hau da, irailetik aurrera, bi urteko haurren eskolaratze

osoari ekingo dio Herri Eskolak, goizez eta arratsaldez, horretarako behar diren bitarteko guztiak eskuratuz (sukaldea, jangela, oheak etab). Herri Eskolak, datozen urteetan zehar, bide horretatik jarraitzeko asmoa du, zeren helburua 0 urteko haurrekin hasia baitu.

**Honek Zumaiari irakaskuntza arloan aspaldidanik zegoen hutsunea betetzen du**

Haurrak txiki-txikitandik eskolaratzeak, haseran pentsa daitekeen baino garrantzi handiagoa



Adin guztietako haur eta gaztetxoek biltzen dituen proiektu honek.

**MATE**  
**ILEAPAINDEGIA**

Berezitasuna ileen sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



**Loitz**

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastikazioak
- Fax Publikoa
- Aidizkari eta Opariak

Erribera Kalea, 4  
Telf.-Fax: 14 34 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



du. Sarritan adin horretako eskolaratzeak, eskola, haurraren gordelekutzat hartzea eramaten du, gurasoak euren eginbeharretarako libreago gelditzen direlarik. Baina asuntza hori baino garrantzitsuagoa da. Haurraren hezkuntzaren ikuspuntutik begiratuz, zenbat eta lehenago eskolaratu orduan eta hobe, lehenago ikasiko baitu besteekin harremantzen eta taldera moldatzen.

## Irailtik aurrera bi urteko haurren eskolaratze osoari ekingo dio

Baina eskolaratze-adina aurreratzearen ekarpen garrantzitsuena hizkuntzaren gertatzen da, are eta gehiago hizkuntza menperatu egoera batean bizi garenontzat. Ama-hizkuntza euskera ez duten haurrak txiki-txikitatik eskolaratzen baditugu, murgilpen prozesua medio, aurrerantzean ez dute hizkuntza aldetik inolako arazorik izango edozein ikasgairi aurre egiteko. Halatan, ardura eta arreta haundiz hartzen du Herri Eskolak gaia, begirune osoa eskeiniz, aurrerantzean zumaian guztien irakaskuntza euskeraz izan dadin.

## 2) Ikasketa mota guztien eskeintza

Herri Eskolak, egun hezkuntza sistemak eskeintzen dituen ikasketa mota guztiak eskeintzen ditu, eta jadanik Zumaia bertan ditugu 19 urte



Gero eta goizago eskolaratzen dira haurrak.

arte egin daitezkeen ikasketa mota guztiak, Batxilerrak (humanistikoa, zientifikoa edo teknikoa) nahiz Lanbide Heziketa izan.

Eskeintza zabal honek, Zumaian irakaskuntza arloan aspaldidanik zegoen hutsunea betetzen du. Lasaitasun haundia dakarkio herriari,



Jangela zerbitzuak ere izango ditu Herri Eskolak.

zere ongi ezaguna dugu orain arteko egoera tamalgarria; hemen ez zegoela eta, aldameneko herrietako eskoletara joan beharra alegia, suposatzen duen kostu eta kezkarik. Orain, Unibertsitatera edo lan mundura joan arteko ikasketak herrian egin ahal izango dira.

## Helburua 0 urteko haurrekin hasia da

Gogo eta ilusio haundiz dator Herri Eskola, betidanik amesten dugun kalitatezko eskola hori eskeintzeko asmotan. Horretarako behar diren bitarteko gehienak bere esku ditu: azpiegitura egokia (eraikuntza berria hastear dago), esperientziadun eta behar laineko pertsonalgora, etab. Beraz ez dago aitzakirik; zumaian (irakasle, ikasle eta guraso) esku dago Herri Eskolaren etorkizuna. ■



**MENDI - ONDO**  
ELEKTRIZITATEA

Axular 14  
20750 ZUMAIA

Telefonoak:  
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
- \* Banakoak
- \* Kolektiboak
- \* Satelite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.



SUKALDEKO  
ALTZARIAK

DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe  
Telefonoa 862051

20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)



Gazteen erantzuna txarra eta pasiboa gertatu bada ere, San Telmotako jaiak urtebete gehiagoz aurrera joko dute, hainbeste itxaroten ditugun

festak. Euria, giroa, urdina eta batez ere arrain usaia izango ditugu lagun, festa berezi hauek irauten duten bitartean. Ez ahaztu errepikatu daitekeela!

## Badatoz berriro danbor soinuak!

Egitaraua oraindik erabat zehaztu gabe badago ere, baditugu dagoeneko jai hauetan burutuko diren zenbait ekintzen berri. Bidebatez esan beharra dago oraingoz behintzat, ez dela sorpresarik egongo.

Beti bezala danborradak izango ditugu ekintza nagusienak. Helduena hilaren 23an izango da, eta haurrena berriz, hilaren 30ean eguerdiko 12etan.

Festak apirilaren 21ean hasiko dira ohizkoa den bertso jaialdiarekin. Hurrengo egunean, larunbatean, gaueko 12etatik goizaldeko 5ak arte "Tarantella" orkestaren ekitaldia izango da. Igandean berriz, "Beti Gazte" dantza taldekoek hartuko dute protagonismoa. Lehenago, eguerdi aldera, txistulariak herriko kaleak alaitzen arituko dira, eta arratsaldeko 5etan erraldoi eta buru-handiek egingo dute irteera. Eguna behar den moduan bukatzeko, "Trabuko" taldeak dantzaldi bat eskeiniko du goizeko ordubateatik aurrera.



San Telmo egunean, goizeko prozesioaz gain, arratsaldeko 5etan profesional mailako pilota partiduak jokatu dira Odieta pilotalekuan.

Gauean, 11etatik goizaldeko 3rak arte, "Lotxo" musika taldea arituko da kofradian, oraindik festa giroaz gozatzeko aukera eta gogoia duten guztientzako.

Hau "gutxi" balitz, eta aste barruan gorputzari ondo merezitako atsedendaldi bat

eman ondoren, hurrengo asteburuan ere jai giroa nagusituko da, festak ez baitira lehen lau egun horietan amaituko.

Horrela, hilaren 29an, goizeko 11 terdietan haur jolasak egongo dira. Gaueko 11etatik aurrera, "Itxas-Gain" txaranga kalejiran ibiliko da kaleetan zehar, eta 12etatik 4rak bitartean, "Talisman" taldea izango degu.

Festako azken egunean, arratsaldez eta baita gauean ere, "Festatxo" herriko taldeak jaiak bukaera emango die.



**Taosa**  
SURF DENDA

- \* Bainujantziak
- \* Surfeko tablak
- \* Toallak
- \* Erropak
- \* Poliesterrezko plastifikatzeak
- \* Erropetako serigrafia

Erribera Kalea, 17 - 20750 ZUMAIA

**BELARDENDA**  
**SIWA**



Esther Blanco  
OSTEOPATA-MASAJISTA  
Basadi 5-C behea  
Tlf: 143404 - 860012



# jaiak bai, gazteak ere bai!



San Telmotako jaiak iristeko egun gutxi falta direnean kezka bat: Zer egin? Erantzunak ugari, baina gure ahoan bakarra: Ezer ez! Azken honi beste hainbat erantzun berri:

-Nola ezer ez? San Telmoak sakratuak dira!

-Txosna beharrezkoa da!

-....

Baina egia bakarra da: Gazte Batzordearen sorrera, urtean zehar Zumaia dinamizatzearen aldeko ekintza bat izan zela. Urte pare batean, hau egia izan bada ere, aldi berean egia da hainbat arrazoiengatik denbora eta gogo gehiena festetan erre degula.

Baina gaur errealitatea beste bat da: azken 6 hilabetetan Gazte Batzordeak ez duela ezer egin. Beraz, ez da zentzuzkoa orain festak direla eta bazterrak nahasten hastea.

Egin dezagun bada, lana urtean zehar, eta ez festetan bakarrik. Hori izan da betiko dilema, baina hortarako herriko gazteen parte hartzea behar da. Gaztea bazera, presta zaitetz herria aldatu, mugitu, bixitu eta animatzera. Guztion artean eta gogoz lortuko degu eta!

Deialdi bat: **apirilak 7**, gaueko 10etan Oxforden elkartuko gera, eta etorkizunaz hitz egin dezagun: lokala, irratia, aldizkaria, festak, kontzertuak.... eta zuk nahi dezun guztia!

Anima zaitetz!

ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA



KLIK

San Telmoak 95

**INPERNUPE ELKARTEA**

Erribera kalea Telefonoa: 861523  
ZUMAI A

**SOLOZABAL AUTOESKOLA**



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenan
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.




P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416



THE END of the WAR







2 ordu eta erdi  1995

The PEACIFIST  
PETY "pitilin" movement ©



# 95eko Aste Antimilitarista



Zumaiako Talde Antimilitaristak -Gu Ez Goaz- aste antimilitarista bat antolatu du gure herrian, ekintza ezberdinen bidez, mugimendu honek duen indarra adierazteko, eta jendearengan iritzi bat bultzatu asmoz. Iaz asteburu antimilitarista izan bazen, aurten astean zehar banaturiko egitarau bat prestatu digute.

Nahiz eta hemen eskeintzen dizueguna oso egitarau zehatza ez izan, ziur gaude garaiz izango dezuela ekintza guztien xehetasunen berri.

Hontaz gain, badakigu kamiseta berri batzuk ere prestatu dituztela eta laister jarriko dituztela salgai. Beraz, hasi dirua aurreratzen.

Bestalde, Juan Luis Blancori eman diote jadanik sententzia, 12 hilabetekoa hain zuzen ere. Aipatu beharra dago epaileak Juan Luisen indultoa eskatu diola Gobernuari.

**ERROTA**  
**ERROTA**  
OPIL - OKINDEGIA



Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68  
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01  
ZUMAIA

**BASUSTA**  
ERRETEGIA



M<sup>a</sup> Dolores Aizpurua  
Pantxita Etxezarreta, 25  
Telefona: 862073  
20750 ZUMAIA

**AXIER KIROLAK**



Ortega y Gasset, 2  
ZUMAIA  
Telefona: 862206

## EGITARAUA

### Apirilak 4, asteartea

Antimilitarismoa gai bezala duen filme bat eskeiniko digute.

**Tokia:** Foronda kultur etxea

**Ordua:** Arratsaldeko 7'30ak

### Apirilak 5, asteazkena

Bosniako gudari buruzko hitzaldi bat antolatu dute, ziuraski SOS BALCANES-eko partaide baten eskutik.

**Tokia:** Profesional zaharra

**Ordua:** Arratsaldeko 7'30ak

### Apirilak 6, osteguna

Hemen dokumental bat aurkezten digute, intsumisioaren ingurukoa.

Izenburua: "Kartzelari plante"

**Tokia:** Foronda kultur etxea

**Ordua:** Arratsaldeko 7'30ak

### Apirilak 7, ostirala

Asteke ekintza garrantzitsuetako bat dugu egun honetan: "Intsumisioa gaur" izenburupean, mugimendu antimilitarista eta alderdi politikoez osaturiko mahai ingurua.


**Tokia:** Profesional zaharra

**Ordua:** Arratsaldeko 7'30ak

### Apirilak 8, larunbata

Jai giroa izango da nagusi egun honetan, bazkari herrikoia eta kontzertua egongo direlarik..





**motxian,  
hi!**

Nor: Gotzon Osa  
Nola: "Gotzon"

-Ali Baba bazina, zer eskatuko zenieke lapurtzeko 40 lapurrei?

Zoriona

-Zerk ematen dizu amorrua?

Jendearen faltsukeriak.

-Zerk pozten zaitu?

Gustora egotea ni neure buruarekin.

-Zein da zure afizio nagusia?

Deportea.

-Neska bati botako zenioken piropoa.

Hasta luego feísima!

-Zer behar da ondo bizitzeko?

Osasuna eta lan pixkat.

-Zerk sortzen dizkizu hotzikarak?

Guardia Zibilak.

-Hil ondoren zer?

Jendearen erreakzioa ikustea gustatuko litzaidake.

-Zein etxeko felpudotan garbitu nahi zenituzke zure oinak?

Ricardo Peñaren alfonbran.

-Noren aurrean urtuko zinan?

Neska baten aurrean, eskatuko bazidan berekin ibiltzeko.

-Zer abesten dezu dutxan?

Hau kantatzen diat ba:

Ez da pinta kabala  
Gotzonek dakarrena  
kaltzontzilorik gabe  
buztana kanpoan.

-Zer eskatuko zenioke gaur egungo gizarteari?

Sinzeritate gehiago eta maskara kentzeko

-Zer izenburu jarriko zenioke zure bizitzari buruzko artikuluari?

Desastre de alto nivel.

Kontu-kontari

Gerra osteko Zumaian bazen Xaku izenez ezagutzen zuten pertsonaia bat. Garai hartan zegoen gosea dela eta, Talai-Mendin zeuden baratzetara joan ohi zen lapurretara, ea zer harrapatuko!

Gau batean, babak harrapatzen ari zela, nagusiak ikusi egin zuen, baina hara hurbiltzerako, Xaku aldegin zegoen. Xaku delakoa, igandeko mezetan bandeja pasatzen zuena zen, gaur poltsa pasatzen den bezala diru eske.

Hurrengo igandean, han zen baratzeko jabea mezetan, bandeja pasatzen noiz hasiko ziren zain.

Xaku bandejarekin bere parera iristerakoan, eskua patrikan sartu eta poliki-poliki hiru baba ale utzi zizkion Xakuri beste txanpon guztien artean. A zer aurpegi geratu zitzaion!



**ALBAITARITZA  
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea  
20750 ZUMAIA  
Tel. 143310

LARRIALDIAK  
- 24 orduetan  
- Zeure etxean  
- Telef. 900-282828  
Abonatu zbkia: 247790

**BIZKOR  
FOTOKOPIAK**

- \* Enkuadernaketak
- \* Plastifikatzeak
- \* Fax publikoa
- \* Bulegoko materiala

Basadi, 14 behea Tfnoa: 143120  
ZUMAIA Fax: 143120




**"Zuk aupa esan baina ez du altxatu nahi eta lagun onena bihurtzen da etsai Gero ez denean nahi altxatzen da alai honi alferrik zaio esan ez edo bai honi alferrik zaio esan ez edo bai**

**Hondartzetan jartzen da de tienda kanpaina behar den momentuan apaltzen da baina Nork ulertu lezake hori alajaina? esaidak sexologo nola piztu kaña esaidak sexologo nola piztu kaña.**

*Baleike*

# "Esaidak sexologo nola piztu kaña"



**Hau gainditzeko sexua gozatzeko egiten den zerbait bezela ikusi behar dugu, eta ez gainditu beharreko proba bat bezela"**

Zigor Enbeitak oso argi erakusten digu bertso hauetan askotan gizonezkoei gertatzen zaiena: zakila insumiso bihurtu eta ez duela inolako agindurik betetzen. Gutxien espero duzuenean tentetzen da eta bere "lana" egiteko eskatzean ez du bururik altxatzen. Dena oso ongi doa,

penetrazioaren unea iritsi arte. Orduan, urtetan jasandako bakardadeko torturaren mendeku bezela edo, hustu egiten da, haizerik gabeko globo baten itxura hartuz. Eta ez dago zer eginik, nahiz eta emakumeak bere trebezia ezkutuenak erabili, zakilak ez du bururik altxako.

Gainera ez da hori okerre. Txarrena horrek ekartzen dituen ondorioak dira: Gero eta gogo gutxiago sexuaz gozatzeko, etsipena...

Baina zergatik gertatzen da guzti hau? Zergatik une "garrantzitsuenean" zakilak esaten du ezetz?



## OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057  
20750 ZUMAIA

**balezulo**  
inportaturiko erropa  
eta artisautza  
Basadi 3 Zumaia



Erantzuna argia eta zehatza da: beldurratik. Edozeinek harrapatuko zaituenaren beldurratik, haurdunaldi baten beldurratik, eta batez ere, zure "betebeharrak" ondo ez egitearen beldurratik. Gizartearen ustez emakume batek eskatzen duena ez betetzearen beldurra da arazo honen arrazoi nagusia. Beldurrezko etengabeko egoera horrek lasaitasun eza dakar, eta honek era berean, zakilaren apaltzea.

Zer da fisiologikoki gertatzen dena?

Zakila tentetzearen prozesua oso xinplea da. Odola neurri izugarritan iristen da zakilera, zainek bi funtzio betetzen dituztelarik. Alde batetik, odola ekartzen duten zainak handitu egiten dira, odol gehiago sar dadin. Bestetik, odola ateratzen uzten duten zainak itxi egiten dira, odola zakilean gera dadin.

Horrela, odolaren presioaz, hain kurioxa den fenomeno hori ematen da, zakilaren tentetzea. (oh! miraria!)

Beldurra eta lasaitasun eza egoera batean, odola ateratzen

**Zure betebeharra ondo ez egitearen beldurratik ematen dira horrelako egoerak**

uzten ez duten zainek zabaltzeko agindua jasotzen dute, odolak zakiletik ihes eginez eta honek gogortasuna galduz.

Beldurra dugunean, lasaitasun ezako egoera batean sartzen gara, eta honek zakila jeistea ekartzen du. Zakila jeistean oraindik ere urduriago jartzen gara eta irteeratik gabeko zuloan sartzen gara. Gizonezkoak konfidantza galtzen du eta desastre bat dela pentsatzen du.

Nola konpondu arazo hau? Nola atera zirkulo ero hontatik? Oso xinplea. Sexuaz dugun ideia aldatu behar dugu. Sexua gainditu behar den proba bat bezela ulertu beharrean, gozatzeko egiten den zerbait bezela ikusi behar dugu. Utzi betebeharrak alde batera eta gozatu besterik gabe! ■

**"Homo-Mulier Futuens" (Gizaki larrujolezaleak)**

Baleen gizartean, ligatzerako orduan kontaktu fisikoak ez du funtzionatzen, eta kantuen bidez jartzen dira harremanetan. Gaur egun, itsasontziek sortutako zaraten ondorioz ia ezinezkoa zaie harremanetan jartzea, eta beraz, sexu harremanak izatea oso zaila zaie.

Elefanteen egoera ere ez da askoz hobe. Emea hiru edo lau urtetan, bi edo hiru egunetan bakarrik dago prest sexu harremanak izateko, haurdun geratu arte. Gainera arrak minutu erdi bat baino ez du emea estaltzeko eta behin zakila sartu ondoren bederatzi segundutan lortzen du orgasmoa. Honek arrazoi bat du: denbora gehiago behar izanez gero, emeak ezingo luke arraren pixuarekin.

Gorilak aztertu ezker ere, zera esan dezakegu, hamar egunetan behin egiten dutela.

Datu hauek giza arrazarekin konparatuz ikusten dugu "Homo-Mulier Futuens" batzuk garela, berrogei urtetan zehar, egunero harreman sexualak izateko aukera baitugu. Beste gauza bat da zeuek baleen maiztasunarekin izatea harremanak... je, je...



# ZUMAIÁ



## AUTO -ESKOLA



\* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua  
 \* Praktika eta azterketak Azpeitian  
 \* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea  
☎ 861018

20750 ZUMAIÁ

# Arkupe

Okindegia  
eta gosariak

**Kale nagusia, 2**





# Bi buru txapel batentzat

Kamel Ziani eta Joxe Apalanza gertatu ziren garaile gizonetzkoen proban ■ Emakumezkoetan, Usoa Sorazu izan genuen jaun eta jabe.



Baleike

*Korritu berria den aurtengo kros herrikoa arrakastatsua izan da. Laurehun korrikalaritatik gora hartu dute parte; kopuru aipagarria benetan. Hauetatik gehientsuenak gizonetzkoak izan badira ere, emakumezkoak ez dira atzean geratu. Bestalde, gizonetzkoen proban lehen bi sailkatuek 1990. urtean Garinek egindako errekor bikaina bertan behera uztea lortu dute, segundu gutxi batzurengatik izan bada ere.*

Urte honetako Euskadiko kros txapelduna den Kamel Ziani oriotarra eta Joxe Apalanza errezildarra gizonetzkoetan, eta Usoa Sorazu getariarra emakumezkoetan dira Zumaiako krosetako garaile berriak.

Gizonetzkoen lasterketa emozioz beterik egon zen, Ziani eta Joxe Apalanza korrikalari ezagunaren arteko norgehiagoka ikusgarria gertatu baitzen.

Biak hor aurrean izan genituen nor baino nor gogo biziz, garaipena eskuratzeko asmotan. Azkenean, biak batera heldu ziren helmugara, denbora berdina eginez, 30'51". Denbora honekin errekor berri bat ezarri dute eta aurrekoa hobetzeagatik eskeintzen ziren 100.000 pezetak jaso dituzte.

Emakumezkoetan, Usoa Sorazu getariarrak erraz irabazi zuen. Bigarren egin zuen Rosa Mari Luenari ia hiru minututako abantaila atera zion; ez zen kolorerik egon proba honetan.

Aipatu beharra dago emakumeen partaidetza handia izan dela, irten zirenetatik bat bakarra izan zen helmugara iristea lortu ez zuena. Gizonetzkoetan berriz, 356 korrikalaritatik 30ek ez zuten lasterketa amaitzerik izan. Kontutan hartzeko datua da hau.

Zumaiarrei dagokienez, 103 lagun izan dira kros honetan korritu dutenak, 91 gizonetzkoak eta 12 emakumezkoak.

**Laurehun korrikalarik baino gehiagok hartu dute parte kros herriko honetan**

Gizonetzkoetan Jesus Mari Alvaro izan degu nagusi, azken sailkapenean 25. postua eskuratu; emakumezkoetan, Mila Garcia izan da lehena 18. postuan sailkatuz. Hau senior mailari dagokionez. Beteranoen artean Jesus Mari Aginagalde izan da azkarrena eta junior edo gazteen artean Egoitz Maia.

Partehartzaile zumaiarrak asko izan diren arren, agian Mariano herriko korrikalari onenaren falta sentitu degu, batez ere hor aurrean emozio pixkat gehiago jartzeko. Zumaiarrak garenez, hau normala da; baina beno, hurrengo urtean izan beharko du.

Sailkapen honetaz aparte, beste korrikalari guztiek ere aipamen berezi eta txalo bero bat merezi dute. Horregatik, hemen doakizue gizonetzko zein emakumezkoetan helmugara iristea lortu zuten zumaiarren zerrenda.



**Gizonezkoen azken sailkapena**

1	Ziani Huasisi, Kamel	30'51"
2	Apalanza Beristain, Joxe	30'51"
3	Gonzalez Martin, Santi	31'55"
4	Campos Canbero, Diego	32'38"
5	Blanco Piñero, Miguel	32'41"
6	Arrieta Bakaikoa, Alvaro	32'55"
7	Olamusu Jauregi, Ignacio	32'57"
8	Vaqueriza Etxeberria, Josetxo	33'06"
9	Ibarbia, Iñaki	33'21"
10	Salvador, Jon	33'31"

**Zumaiarrak**

25	Alvaro, Jesus Mari	35'01"
68	Amenabar Arzallus, Xabier	37'13"
69	Martin Irigoien, Ricardo	37'16"
70	Agirre Esnal, Felipe	37'17"
78	Alvarez, Juanjo	37'33"
81	Osa Peña, Jaime	37'44"
82	Hidalgo, Andoni	37'46"
84	Martin Irigoien, Aser	37'56"
86	Egaña Iztueta, Josu	38'02"
96	Lopez Hernandez, Juan Manuel	38'23"
97	Sasiain Zubimendi, Mikel	38'24"
98	Esteibar Soraluze, Erlantz	38'24"
103	Yeregi Letamendi, Mikel	38'36"
107	Olaizola Aizpurua, Mikel	38'41"
114	Bernal, Miguel Angel	39'04"
115	Parejo, Joaquin	39'07"
116	Aginagalde Mujika, Jesus Mari	39'08"
118	Alloria, Juan Ignacio	39'12"
124	Tamayo Etxegoien, Txetxu	39'42"
125	Barrera, Javier	39'48"
126	Albizu Agirrezabalaga, Jon	39'51"
130	Aizpurua Etxabe, Felix	40'01"
135	Martin Escudero, Roberto	40'13"
137	Igual Sanchez, Julian	40'17"
139	Laskibar Gastiain, Xabier	40'17"
143	Sasiain Zubimendi, Jon	40'27"
144	Zubia Zaldua, Faustino	40'30"
145	Santamaria Sanchez, Peio	40'32"
147	Irureta Ostolaza, Xabier	40'38"



*Dirua erdi bana egiteko tratua izango zuten bi korrikalariek*

157	Maia Soria, Egoitz	41'02"
161	Villar Kalparsoro, Vicente	41'13"
166	Alzibar Arozena, Xabier	41'28"
183	Esteibar Soraluze, Oier	42'33"
199	Fernandez Galan, Antonio	43'19"
201	Landa, Jose Ignacio	43'20"
204	Gajate Pinedo, Fernando	43'24"
212	Gonzalez Gabarain, Marcos	43'59"
216	Azkue, Xabier	44'15"
217	Eizagirre Garrastazu, Asier	44'16"
219	Leiza Alberdi, Aitor	44'19"
220	Moreno Heras, Carlos	44'22"
226	Diaz Alberdi, Jorge	44'27"
228	Duran, Benito Jose	44'30"
235	Jimenez Gomez, Teodoro	44'53"
236	Santamaria Sanchez, Martxelo	44'55"
244	Urbietta Philippe, Estephan	45'23"
245	La Fuente Egaña, Jurgi	45'26"
246	Beristain Urbietta, Jesus Mari	45'31"
247	Leiza Alberdi Sebastian	45'32"
248	Etxabe Aramaendi, Iñigo	45'33"
249	Martin Irigoien, Ibon	45'33"
250	Zubimendi, Miguel Mari	45'34"
251	Urbietta Sodupe, Antxon	45'34"
252	Urkidi Ostolaza, Jokin	45'35"
254	Kerejeta Gonzalez, Miguel	45'36"
257	Balenziaga Repulles, Karlos	45'47"



*Arraunlariak taldean aritu ziren denbora guztian eta ederki pasa zuten.*



266	Udabe Idueta, Xabier	46'09"
267	Urbietta, Xabin	46'10"
274	Eizagirre, Javier	46'43"
275	Eizagirre Alvarez, Javier	46'44"
276	Aramendi Agirrezabalaga, Migel	47'00"
278	Caporossi Urrestilla, Bernard	47'05"
279	Egaña, Iban	47'13"
282	Elizalde Azkue, Xabier	47'29"
285	Ibarguren Plaza, Iñaki	47'45"
286	Carballo Ostolaza, Daniel	47'59"
288	Aizpurua Urkola, Iñaki	48'12"
294	Manzisor Olaizola, J. Antonio	48'50"
296	Agirrezabalaga Irureta, J. Mari	49'21"
301	Garcia Fernandez, C. Alberto	50'24"
306	Kortes Lopez, Imanol	51'19"
311	Alzibar, Jon	52'05"
314	Etxabe Laskibar, Imanol	52'32"
315	Jauregi Urbietta, Peio	52'48"
316	Florez Esnal, Julian	53'00"
317	Iraundegi Lopez, Alfonso	53'01"
320	Osa Alzibar, Iñaki	53'54"
321	Olaizola Elosua, Juan Ramon	54'04"
322	Azkue Yeregi, Ricardo	54'19"
323	Ostolaza Manterola, Jesus Mari	54'20"



Herriko emakumeak ere fin portatu ziren.



"Errexil" eta Teo, bikote dinamikoa.

## Emakumezkoak

1	Sorazu Otamendi, Usao	20'12"
2	Luena Antolin, Rosa Mari	22'52"
3	Civicos Marcos, Maite	23'08"
4	Arteaga Labaca, Mari Jose	23'20"
5	Alonso Rosas, Lourdes	23'25"
6	Mariezkurrena Ezkurra, Lourdes	23'34"
7	Baselga Perez, Eneritz	24'03"
8	Silvano Prieto, Maria Jesus	24'06"
9	Estefania Vazquez, Esther	24'06"
10	Azpeitia Eizagirre, Agurtzane	24'37"

## Zumaiarrak

18	Garcia, Mila	27'20"
19	Prol Luis, Rosa	27'21"
21	Agirrezabal, Elisa	27'41"
25	Azkarate, Ainhoa	28'13"
34	Gomez, Maria Jesus	29'01"
37	Manterola, Maria Pilar	29'21"
38	Mendizabal, Ana Delia	29'23"
42	Vicente, Belen	30'43"
43	Arzuaga Etxaniz, Lucia	30'50"
49	Jimenez, Pili	33'03"
50	Perez, Rosa Maria	33'04"
56	Gutierrez, Pepi	34'33"

KOSTA  GAS

GAS ETA  
KALEFAZIO  
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

**expert**   
**ELEKTROGAILUAK**

Mertxe Aizpurua  
expert eta  
Repsol-Butanoren  
Banatzaile Ofiziala

**GURE TXOKOA  
TABERNA**

Kaxuelita eta pintxo  
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia



Otsailean hasi eta apirila bitartean IDAZKETA TAILER bat dago martxan larunbatero, Foronda Kultur Etxean. 8-10 lagun bildu ohi dira eta ipuinak, olerkiak eta bestelako testuak idazteko zenbait truko ikasi eta praktikan jartzen dituzte, Yolanda Arrietaren aholkuak jasoz. Guk, olerki hauek "lapurtu" dizkiegu, oraingoz, aurrerantzean ere testuak jasotzen jarraitzea gustatuko bailitzaiguke.

*Balkoi ireki aurrean  
eserita nagi  
barnera sartzen zait  
ilargiaren argia  
laster etorriko da  
nire maitia  
irudimenean dakusat  
irriz  
bere aurpegia*

*Kolpez ubeldua  
soin zanpatua zoluan datza  
burdin leihotik  
kanpoko txorrotxia  
malko artean  
entzuten ari da.*

*Marra. Muga. Utz ezazue  
garia mugelan hazten! zioen  
poetak.*

*Eskailerak gora eta behera  
pasatzen dut eguna  
Ateak ireki eta itxi gela batetik  
bestera barrura  
Espazio sakabanatua eta eroa  
behean zarata  
goian lasaitasuna*

*Behen bizi espazioak  
orain espazio erabilgarriak  
bizilekuak-aterpeak.*

*Hanpoan negua  
barruan berua*

*Txoko kuttuna;  
zure gerizpean egiten dute kabia  
ene ametsek.*

*Zu zaitut bizitzak emandako  
nahigabeen gordailu kutxa.  
Bihotzeko txoko maitagarria,  
zugañ loratzen da  
ene nortasuna  
ene mundua.*

*Bakaradaderik gabeko bakea  
ematen didazu  
zure oroimen, bitxikeria eta  
traste-zahar artean.*

*Zu zara, irudimenezko bidai  
liluragarrien bidez  
mundu zabalera hegan naraman  
atea;  
intimoa erabat.*

*Pozik, lasai, aske, ...  
Hemen ez da inor arrotzik,  
ni bakarrik.  
Zu niri baino,  
ni zuri zagozkil,  
zurea naiz.*



JUSTA  
TABERNA  
EGUNEROKO  
BAZKARIAK


Erribera kalea 20, Zumaia

**KALARI** TABERNA  
JATETXEA

- \* Eguneko menua
- \* Plater konbinatuak
- \* Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA





**Apirilak 6**  
osteguna  
**Gaueko 9'30tan**  
**"ADIOS A MI**  
**CONCUBINA"**  
**(1993) -170 minutu-**  
**Aktoreak: - Leslie Cheung**  
**- Zhan Fengyi**  
**Zuzendaria: Chen Kaige**



**Apirilak 20**  
osteguna  
**Gaueko 10'15etan**  
**"MEDITERRANEO"**  
**(1991) -105 minutu-**  
**Aktoreak: -Diego Abatantuono**  
**- Claudio Bigagli**  
**Zuzendaria: Gabriele Salvatores**

Berrogeitamar urtean zehar Txinaren historiari loturiko bi aktoreen maitasunaren istorioa. Aldaketa politikoez (Gerrako Jaunen arteko liskarrak, japoniarren aurkako gerra, Mao Zhe Dong-en iraultza burgesiaren kontra, iraultza kulturala...) maitasun horrengan zer eragin izango duen kontatzen digu Kaige-k eta oso ongi gainera, maixutasun haundiz. Zuzendariaren jarrera oso tradiziozalea izan arren, garbi frogatzen duena zera da: Artea egiteko ez dela nahi ta ez aurrerakoi izan behar; eta hala ulertu zuen 1992ko Cannes-ko epaimahaiak Urrezko Palmondoa filme honi eman baitzieten.

Aste antimilitaristaren barnean bota behar zen filme hau, baina kontratazio-arazoak direla medio 15 egun atzeratu behar izan da. Salvatores-ek (sei filme egin arren hau bakarrik ekarri dute hona) filme antimilitarista egin du baina era oso atseginean. Soldadu talde bat Bigarren Mundu Gerran inkomunikatua geratzen da, teoriarik etsaia den irla batean. Filma honek soladadu hauen eta irlakoen arteko harreman anaikor eta lasaia kontatuko digu. Gerra goikoek egiten dute; behekoek ez dute elkarren aurka ibiltzeko arrazoirik.



## IRAKURKETAKO AUKERAK

Hauze dezue dira Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berrien zerrenda. Gogoratu gainera, hauetaz gain Liburutegianbeste liburu mordoa topa daitekeenez, guztion gustoa asetzeko aukera dezuela.

### EUSKERAZ

Ipuin lizunak  
Euskaldunon aberial  
Tubabu  
Kuba triste dago  
Urzabaletan  
Hautsaren kronika  
Kutsidazu bidea, Ixabel  
Eztia eta ozpina  
9408 Narrazioak

Aitor Arana  
Pako Aristi  
Jon Arretxe  
Juan Martin Elexpuru  
Aingeru Epalza  
Inazio Mujika Iraola  
Joxean Sagastizabal  
Patxi Zubizarreta  
Askoren artean

### GAZTELERAZ

Cruzar el Danubio  
El peso de las sombras  
No puedo vivir sin ti  
Tonto, muerto, bastardo e invisible  
Venus Bonaparte  
Telepena de Celia Cecilia Villalobo  
Si al atardecer llegara el mensajero  
Vida privada

Ignacio Carrión  
Angeles Caso  
Manuel Longares  
Juan José Millás  
Terenci Moix  
Alvaro Pombo  
Soledad Puértolas  
J. M<sup>a</sup> de Segarra



**AIZPURUA**

LIBRURU  
DENE  
DOPARIK

Aita-Mari Auzategia, 17  
Telefona: 861569  
20750 ZUMAIA



## ERTZ INFORMATIKA

**Mendaro Martiela 3**

TEL: 14-33-95  
Zure INFORMATIKAKo Denda

-ORDENAGAILU P.C  
-INPRIMAGAILU  
-CD-ROM  
-KRISTALEZKO PANTAILAK  
-DISKETTEK



Apirilaren  
7an, Forondan  
7,30etan

Diapositiba  
emanaldia

"IRATI"  
(Josu Eizagirre)

**ERAKUSKETA**  
Forondan:  
San Juan  
Egoitzako lanak



## GOAZEN TXURI-URDINERA!!

Ludotekak Txuri-Urdinera joateko irteera batzuk antolatu ditu hilabete honetan, 3.etik 8.maila bitarteko haurrentzat.

Apirilaren 18an 3 eta 4, mailakoak joango dira, 19an 5 eta 6. goak eta azkenik, 7 eta 8. mailakoek hilaren 20an izango dute beren txanda.

Irteera Ludoteka bertatik izango da, eguerdiko 2etan, eta iluntzeko 8etarako izango da itzulera.

Izen-ematea ludotekan egin daiteke, apirilak 7a baino lehen eta 400 pezta ordaindu beharko dira.

Ondo ibili!!



Apirilak 21, ostirala  
Maria eta Jose  
ikastetxean  
gaueko 10,30etan  
**BERTSO SAIOA**



- Andoni Egaña
- Sebastian Lizaso
- Anjel Mari Peñagarikano
- Jokin Sorozabal
- Aritz Lopategi
- Jexus Arzallus

Gai-jartzaile: Izaskun Elizburu

## KOMIKI LEHIAKETA

Gure aldizkari honen lehen urteurrena dela eta, komiki lehiaketa bat antolatzea pentsatu degu, herriko eta inguruko artistek parte har dezaten.

Hurrengo hilerako betebeharreko baldintzak jakineraziko ditugu, baina zuri-beltzean eta euskaraz izan beharko direla aurrera dezakegu.

Hasi, beraz, zuen lanak prestatzen!

## San Telmo saria

Hil honen bukaeran jakineraziko dira literatur sariak

 **Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAIA AUTOAK**

Juan Belmonte, 45  
ZUMAIA

Telefona: 861485  
Fax: 143143

**EGUZKI PUB**

**KOKTEL BEREZIAK**

Basadi Auzategia  
9-A 2-B  
ZUMAIA



**ITSASKI**  
supermerkatua

 Urumea kalea z/g  
Zumaia



# THE PACK, bizi-bizirik

THE PACK herriko talde mugituena dugu. Duela urte t'erdi inguru sortu zen eta beren musika egiteak bultzatu zituen horretara. Taldekideak Oscar Cabeza (kitarra eta ahotsa), Jon Manzidor (kitarra eta ahotsa), Igor Etxabe (baxua) eta Imanol Manterola (bateria) dira. Beraiekin egon ginen musika eta herriko zenbait kontutaz hitz egiten, eta hau da elkarrizketa hartatik atera deguna.

## Zer musika lantzen dezue?

Batez ere Rocka, honen barruan zenbait estilo ezberdinetatik mugituz, eta SKA pare bat ere baditugu.

## Zein da zuek entzuten dezuen musika?

Guztiok entzuten degu musika ezberdina. Musika lasaia, Rock & Rolla, Reggaea, beno denetik. Dena den gure influentzia garbiena Rocka da, honen barruan berezitasunak bilatuz.

## Nola dago musika giroa herrian?

Azken hiru urtetatik hona gauza berriak sortzen ari dira, batez ere instituzio mailatik kanpoko musika egiten dutenen artean, horrek musika lantzeko orduan ematen duen askatasunarekin.

## Zenbat talde daude Zumaian?

Bost bat talde dira, Rockaren inguruan mugitzen direnak denak, hauetako batzuk Musika Eskolan ikasten dutenak. Lehen Musika Tailer hartatik FESTATXO sortu zen, eta ni (IGOR) izan nintzen lehen baxua.

## Nola ikusten dezue Musika Eskola?

Ondo dago, zerbait ikasi nahi badezu. Jendea bertan musikaren inguruan elkartzen da eta hori beti ona da, baina dena mugaturik dago. Zuk nahi dezunaren arabera erabil dezakezu.

## Zumaia eta kontzertuak. Debekaturik al daude?

Hori betiko borroka da, gazteen eta Udaletxearen artekoa.

## Uda aldean berbenarik ez da falta izaten ba...

Ez, horretan gastatzen da dirua, aurre ez degu Rock kontzertu bat bera ere ikusteko aukerarik, eta hori negargarria da.

## Jarraitzen al dezue beste euskal taldeen musika?

Bai noski, gure "kontenporaneoak" baitira.

## Nola ikusten dezue kalitatea, euskal labelik ba al dago musikan?

Kalitate ona dago, eta mugida haundia, nahiz eta azkenean getho moduko bat izan. Rocka da gehien entzuten dena eta honek taldeak musika mota hau lantzerantz mugatzen ditu, horretara ohituak gaudelako, bai taldeak eta baita entzulegoa ere.

## Agian Aste Santuan zerbait grabatuko degu

## Zenbat kontzertu eman dituzue?

Gutxi, zortzi inguru.

Euskal taldeek erabili behar luketen hizkuntzari buruz eztabaida gogor bat sortzen ari da azkenaldi honetan. Zein da honi buruz dezuen eritzia?



Indar haundiko kontzertuak eskeini dituzte.

**IHINTZA**  
taberna  
Tfn: 860472  
Ortega y Gasset, 3

**TXALAPARTA**  
O P A R I A K  
Angeles Sorazu, 2  
20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)  
Telf. 14 30 89  
Fax. 43 06 37

**JEMAR**  
**LOREDE NDA**  
LANDAREAK  
LOREAK  
HAZIAK  
ZERAMIKAK  
Erribera, 1 Telefonoa: 860375  
20750 ZUMAIA



Uuuuff, oso zaila da horri erantzutea. Norberak nahi duen eran kantatzeko eskubidea du. Hala ere, Euskal Herrian gaudenez euskaraz abestu behar dela uste det. Gaztelera baino polit eta goxoagoa geratzen da. Ingelesa ere atsegin degu, txikitatik Rocka hizkuntza horretan entzutera ohitu baikara eta horrek eragin handia du.

**Nola abesten dituzue zuen abestiak?**

Azkenaldian euskaraz eta ingelesez abesten ditugu. Baditugu gaztelera zozko zenbait kanta, baina ia ez ditugu jotzen. Gure arazoa da kantariak euskaraz ez dakiela; lau bat hitz bai, baina euskaraz espresatzeko arazoak ditu. Dena den ikasten ari da eta gero eta gehiago sartzen degu euskara gure abestietan.

**Zerbait grabatu al dezue?**

Ez, baina agian Aste Santuan zerbait egingo degu.

**Gure influentzia garbiena Rocka da**

**Zenbat abesti dituzue?**

Asko, landuta hogeit inguru, eta bestela gordeta asko. Denon artean aukeratu behar da, eta batez ere konposatzen dituenak du hortan pixu handiena.

**Zumaiako tabernak nola portatzen dira musikarekin?**

Denetik dago. Ondo dagoen gauza bat da herrian denetik entzun daitekeela; hiru edo lautan konkretuki ona jartzen dute.



lazko San Telmotan izan zen "estreno ofiziala".

**Zein talderekin joko zenukete gustora?**

Askorekin. Adibidez kanpokoen artean SONIC YOUTH eta hemengoetan AMASAY eta EL INQUILINO COMUNISTAREkin.

**Politika beren abestietan talde askok darabilten gaia da. Zuek ere bai?**

Orain arte ez gehiegi, baina ez dugu ez alde batera utzi; adibidez hor dago "Hiltzaile" abestia. Euskal Herria gatazka batean dago eta hori ezin da ahaztu. Horrek mugatu edo eta sailkatu egiten zaitu, baina ezin degu guzti hori ahaztu. Xabi "Txato"-ren omenaldian han izan ginen, adibidez.

**Gustokoenak dituzuen euskal talde edo kantariak?**

AMA SAY eta BAP. Mikel Laboa ere bai.

**Bakalaua?**

Ez da ezer. Bakalaurik onena sagardotegian piperrekin prestatzen dutena.

**Uharte batera eramateko hiru gauza?**

Instrumentoa, harri koxkor bat eta neska laguna (nahi badezu noski). agian kirolen bat lantzeko zerbait.

**Laster dira SAN TELMOAK. Zer eskatuko zenuketen?**

Pare bat kontzertu on, giro atsegina, martxa eta euri pixka bat.

**Intsumisioa.**

Intsumisioa? Hor dago erantzuna -diote intsumisioaren aldeko kartel handi bat seinatuz-. Hori garbi dago bai.

**Kirol portua ondo ala gaizki?**

Zumaia Bizirik dago ondo, jende multzo herrikoia da eta herriaren alde dago lanean. Barraren asuntoa ondo dago, baina kirol portuarena ez da batera garbi ikusten. Kirol portua kalte handia sortzen ari da herrian, eta Zumaia Bizirik soilik zerbait mantentzearen ari da lanean, hori garbi dago.

**Gazteentzako lokalik izango al da sekula Zumaian?**

Oso borroka gogorra da, pareta baten kontra joatea bezela. Lan asko eta emaitzak oso gutxi. ■

**TXOKO**  
**TABERNA**  
Artadi auzoa  
**ZUMAIA**

*Jesuskoa*  
*Fateltzea*  
  
*Txoca 86-17-39 • C/ikoa - Zumaia*

**KABI**  
TABERNA - ZUMAI



## Eta matematikak zer moduz?

Gehiketa, kenketa edo biderkaketa eginez, ondorio hau atera behar dezu.


$$2 \ 4 \ 5 \ 9 = 21$$

$$5 \ 3 \ 8 \ 2 = 20$$

$$8 \ 5 \ 5 \ 4 = 19$$

Erantzunak:  
 $2 + 4 \times 5 - 9 = 21$   
 $5 - 3 + 8 \times 2 = 20$   
 $8 - 5 \times 5 + 4 = 19$

## Ezetz lortu!



Kapaza izango ote zera ezkerreko irudia marrazteko arkatza paperetik behin ere altxatu gabe? Saia zaitetz, erreza da eta!

## Negar egiteko txisteak

Lagun kuadrila tabernan bilduta dago. Halako batean txiste giroa sortzen da eta zera botatzen du batek:

-Ba al dakizue zer diferentzia dagoen Jainkoaren eta bilbotarren artean?

Basta hi! Bota ezak behingoz!

Jainkoa leku guztietan dagoela, eta bilbotarrak berriz leku guztietan egon dira.

Nekazari bat soro-lanetan ari da eta bitartean, bere etxean, haurdun zuen emaztea.

Halako batean, lagun bat joan zaio bila esanez:

-Zure emaztea ospitalean dago, semea izan du baina arazo bat gertatu da; oxigeno ipini behar izan diote.

-Oxigeno, hau bai pena! Nik Juanito ipini nahi nion...

## Hitz Zopa

E T K A I B N I G D  
 L S X I C C L A L O  
 E O U I K X X E A R  
 F T B G M X H U B D  
 A X K I E O A K X O  
 N O K B I A N B U K  
 T A I A K X A U U A  
 E B F P F B K A A I  
 A B X K X O U E M E

Bilatu oihaneko 5 animalien izenak


Erantzuna:  
 Tximo  
 Sugca  
 Lehota  
 Dortoka  
 Elefantea

## Hieroglifikoak



Zenbat faltatu ginen?

Erantzuna:  
 ZU e TA BES TE BAT



Noiz ekarri zuen agiria?

Erantzuna:  
 Epe barruan



**OHARRAK**

Ingleseko klaseak ematen ditut. Maila guztietan.

Tif: 862103.  
Aitziber

Apirilan 7an, gabeko 10tan, eta Oxforden, Gazte Batzordearen bilera garrantzitsua izango da. Azaldu eta eman zeure iritzia!

**AGURRAK**

Inpernupen San Telmotako hiru bluxa daude pertxan zintzilik beraz badakizue. Gestoretako txosnan pote bat... hartuko degu zuen kontura. Aupa!

Joxean eta Pello, estankeko ahate berriak al zarete?

Xipilian txorixarrak  
Xakristian txorixarrari:  
Nun xartu xea!  
kobaxuloa bixita bat ein beharko diau ba!  
Etorriiiiiiii!

Buitraker, kalabaza baratza bat al dezue txitxarro aldian?

Mof, semifinalak Zarautzeko hondartzan dituk eta ez Saharako basamortuan! Hik dituk jorobak hanka artian!!

**SALEROSKETAK**

Eskusoinu bat daukat salgai.96 baju ditu eta "Borsini" da bere marka.Egoera onean dago.Norbait interesaturik egon ezkerro dei nazala telefono honetara: 861811.

**ALDIZKARI HONEN SALMENTA PUNTUAK**

- Jesuskoa
- Errota
- Ogi Berri
- Arkupe okindegia
- Alai janaridenda
- Aizpurua liburudenda
- Olano liburudenda
- Erkibe
- Nikol kafetegia
- Inpernupe taberna
- Zalla erretegia
- Foto Gar

**ZALLA**  
**TABERNA**  
**ERRETEGIA**  
Plater konbinatuak - Otartekoak  
OILASKO ERREAK

San Pedro, 4    Tel: 862387  
ZUMAIA

**ARGIA**



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93  
ZUMAIA

**HEZIKETA PLANA**

**ZUMAIako INSTITUTUA**

N  
A  
L  
I  
Z  
E  
H

IKASTAROA	HASIERA	IZENA EMATEKO EPEA	ORDUAK
* DATU BASEAK II	95/02/06	95/01/27	40
* AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK I	95/02/20	95/02/10	40
* KONTABILITATE MEKANIZATUA	95/03/06	95/02/24	60
* MIKROPROZESADOREAK 51 FAMILIA	95/03/20	95/03/10	60
TESTU PROZESADOREA II	95/05/08	95/04/28	40
NEUMATIKA I	95/05/08	95/04/28	60
KALKULU-ORRIA I	95/06/05	95/05/26	40

\* GAUR EGUN EMATEN ARI DIRA ZUMAIako INSTITUTUAN

IKASLE KOPURU MUGATUA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Ekonomia Departamentua  
Departamento de Economía



**ZUMAIako INSTITUTUA**  
Tf. 86 08 09  
Faxa 86 08 10



# Lehiaketa



Herriko txoko hau ze kaletan dagoen asmatzen dezuenean artean, **Txapartegi gozotegiak** eskeinitako tarta eder bat zozketatuko degu. Utzi zure erantzuna eta datuak Foronda, ONCEko kabina edo Txapartegi bertan **apirilak 21a** baino lehen, eta zorte on!

Ia denok zenekiten bezela, aurreko zenbakian azaltzen zen bikote hura Josu eta Imanol Larrañagak ("Txortena") osatzen zuten. Oraingoan errekorra hautsi dezue, 65 erantzun jaso baititugu, hauen



artean Josu eta Imanolen gelako 24 ikaskideenak. **Joxe Mari Gurmendiri** egokitu zitzaion tarta baina argazkian ikusten denez gelako guztientzat iritsi zen. Zorionak eta on egin!